

Munduko hizkuntzen izenak euskaraz

Lan honek munduko hizkuntza-izenak euskaraz emateko proposamen bat biltzen du eta premiak eragindako lanaren ondorio da. Izan ere, UNESCOk argitaratuko duen *Munduko hizkuntzei buruzko txostenean* (Barreña eta beste 2003a, 2003b) aipatzen diren hizkuntza-izenen euskal ordainak ematerakoan, gai honen inguruan dagoen hutsuneari aurre egin behar izan zaio. Lan honetan, beraz, txostenean aipatzen diren hizkuntza-izenak euskaraz emateko egin den aukeraren berri emango da, eta hartarako erabilitako irizpide proposamena aurkeztuko.

Bi ohar, hasteko, proposamenari buruz: esandako txostenean milaka hizkuntza aipatzen badira ere, ez daude munduan diren guztiak; ezta, sikira, gehienak ere. Horregatik ez ditu irakurleak hemen ezagunak diren hizkuntza asko eta asko aurkituko.

Munduko hizkuntza-izenak erabiltzean identifikazio-arazo handiak izaten dira, sarritan hizkuntza bera hainbat izen ezberdinez ezagutzen delako. Esaterako, 6.809 hizkuntza biltzen dituen *Ethnologue* izeneko katalogoak (Grimes 2000), 41.791 hizkuntza- eta dialekto-izen jasotzen ditu (*Alternate names and Dialects names*).

Egia da arazoa ez dela soilik hizkuntza-izenen kontura mugatzen, sarritan aldaera bi (edo gehiago) hizkuntza bera edo hizkuntza beregainak diren ere eztabaidatzen delako. Hemen eztabaida saihestu eta hizkuntza-izenak, aldaera-izenak eta hizkuntza-taldeen izenak txostenean aipatzen diren moduan jasotzen dira.

Euskarazko izenen aukeraketa

Hizkuntza-izenak, aldaera-izenak eta hizkuntza-taldeak euskaraz izendatzerakoan jarraitu diren irizpideak honakoak dira:

1. Euskaltzaindiak erabakitako edo proposatutako euskarazko hizkuntza-izenak bere horretan erabiltzea, hala nola, *txinera*, *katalana*, *kannadara*, *moldaviera*, *txewera* edo *xhosea*. Horretarako, Euskaltzaindiaren arau berrietara (47a eta 53a, hain zuzen) (Euskaltzaindia 1994-2003) eta *Hiztegi batua* (Euskaltzaindia 2000) iturrira jo da, eta kontraesanak izan direnean, esaterako, *xhosa*, *bengaliera* eta *punjabiera* 53. arau berrian, eta *xhosea*, *bengalera* eta *punjabera* hiztegi batuan, azken erabakia hautatzea aukeratu da.

- ✍ 1.1.- Euskaltzaindiak proposatutakoen artean *kitxua* heteroglotonimoa edo *ruma simi* autoglotonimoa ez erabiltzea erabaki da, batez ere lan honetan *quechuera* eta *quichuera* ezberdintzen direlako. Bestalde, ortografiaren aldetik nazioarteko tasuna gorde nahian gehien erabiltzen den idazkera gordetzea erabaki da geroago aipatuko den arrazoiarengatik.
- ✍ 1.2.- Euskaltzaindiak onetsitako *khmerera*, *oriya*, *tagalo* eta *thailandiera* formen orde, lan honetan *khmerera*, *oriyera*, *tagalog* eta *thaiera* erabiltzea erabaki da. *Khmerera*, *tagalog* eta *thaiera* hizkuntzen kasuetan, jasotako informazioaren arabera jatorrizko edo bertako formari hobeto egokitzen zaielako; *oriyera* hizkuntza-izenaren kasuan, zilegia dirudielako –*era* atzizkia erabiltzea, Oriya Indiako eskualde baten izena baita, eta era horretan eraiki direlako Indiako beste hainbat hizkuntza-izen, hala nola, *punjabera* Punjab eskualdetik eta *bengalera* Bengalatik.

Euskaltzaindiak orotara 200en bat heteroglotonimo onetsi dituenek, hizkuntza ofizial direnenak gehienez, hurrengo irizpideak onetsi dira gainerakoei dagozkien heteroglotonimoak zehazteko.

2. Euskaltzaindiak onetsi ez dituen hizkuntza-izenetarako, azken aspaldian euskarazko testu eta idazkietan erabilitako heteroglotonimoak jasotzea, hala nola, *alsaziera*, *aragoiera*, *bretainiera*, *erromantxera*, *galesera*, *okzitaniera* eta *provenzera*.

3. Euskaltzaindiak proposatu ez dituen gainontzeko heteroglotonimoetarako, ingelesezko heteroglotonimoetan oinarritutako egokitzapena proposatzea, horrela erraztu egiten baita beste hizkuntzetan idatzitako hizkuntza jakin bati buruzko informazioa biltzea. Aipatu egokitzapena jarraian zehaztuko diren irizpideak kontuan izanik egin da:

- ✍ 3.1. Ingelesezko heteroglotonimoetarako egina dagoen aukeraketa ortografikoa gordetzea, hala nola, *chuvashera*, *chrauera*, *khalingera*, *q'anjob'amera* edo *q'eqchi'era*.
- ✍ 3.2. Oinarritzat hartutako ingelesezko heteroglotonimoa pertsona-taldea edo herrialdea izendatzeko ere erabiltzen bada, *-era* atzikia eranstea, hala nola, *achuarera*, *bavariara*, *igboera* edo *ingushera*, atziki horren bidez, eta Euskaltzaindiak dioen legez, hizkuntza bereizi egiten baita herritarren eta herrialdeen izenetatik.

Aldiz, ingelesezko heteroglotonimoa herritarrak edo eskualdea adierazteko erabiltzen ez bada, edo ez bada halakorik identifikatzeko informaziorik eskuratu, bere horretan erabiltzea erabaki da, *-era* atzikia erantsi barik, alegia. Kasu horietako adibideak honakoak dira: *aguano*, *andoke*, *halung* edo *peere*.

- ✍ 3.3. Oinarritzat jasotako ingelesezko heteroglotonimoak atzizkiren bat biltzen bada, atziki hori euskal atzizkiaz ordezkatzea, esate baterako, *asturiera* (< asturian), *ossetiera* (< ossetic), *piemontera* (< piemontese) edo *serbiera* (< serbian).
- ✍ 3.4. Oinarritzat jasotako ingelesezko heteroglotonimoa 'e' bokalaz amaitzen bada, *-era* atzikia eranstean '-e + e- = ee' fonetika-legea gordetzea, hala nola, *eveera* (eve + -era), *kagateera* (kagate + -era) edo *mattoleera* (mattole + -era).

Halere, jatorrizko heteroglotonimoak 'e' bi biltzen baditu hitz-amaieran, bokalkopuru hori soiltzea, esate baterako, *creera* (<cree + -era) kasuan.

- ✍ 3.5. Oinarritzat jasotako ingelesezko heteroglotonimoa 'a' bokalaz amaitzen bada, '-a + e- = e' fonetika legearen arabera proposatzea, hala nola, *abazera* (abaza + -era), *amueshera* (amuesha + -era), *damera* (dama + -era) edo *medumbera* (medumba + -era).

Oinarritzko heteroglotonimoa 'ea' hiatumez/bokal sekuentziaz amaitzen bada, '-eera' idaztea *-era* atzikia eranstean, hala nola, *tibea* > *tibeera*.

Oinarritzko heteroglotonimoa silaba bakarrekoa baldin bada, amaierako 'a' bokala gordetzea, hala nola, *gaera* (< ga + -era).

- ✍ 3.6. Ondoko salbuespena egitea ere erabaki da: Europan zehar bizi diren ijitoen hizkuntza, nazioartean hainbat heteroglotonimoren bidez ezagutzen dena (gipsy, rromani, eta abar), euskaraz *ijitoera* izendatzea, izan ere, *erromintxela* euskal terminoa, soilik Euskal Herrian ijitoek erabili duten hizkerarentzat gordetzea zuzenagoa dirudi.

4. Hizkuntza-taldeen izenak (phylumak, familiak, eta abar) euskaraz adierazteko, antzeko irizpideak jarraitzea, baina oraingoa *-(t)ar* atzizkia erantsiz:

- ✍ 4.1. Hizkuntza-izenekin egin den legez, terminoren bat Euskaltzaindiak emana bada, Euskaltzaindiak bideratutako toki-izen baten gainean eraikia bada (38. araua, esaterako) edo azkeneko urteetan testu eta idazkietan nolabaiteko erabilera izan badu, termino hori jasotzea, hala nola, *azteka*, *erromantze*, *kaukasoar*, *txinatar*, *txadtar*, *turkiar* eta *indoeuropar*.
- ✍ Salbuespen modura, alboratu egin da lan honetan Euskaltzaindiak onetsitako 'Itsaso Baltikoa' toponimoaren 'baltiko' erroa hizkuntza-familia izendatzeko, eta 'Balt' toponimoaren gainean eraiki da hizkuntza-taldearen euskal izena: *baltar*. Erabaki horrekin euskaraz arrotza den atzizkia baztertu egin daiteke.
- ✍ 4.2. Gainerakoentzat nazioarteko izenetan oinarritzea, baina jatorrizko izenean izan dezaketen atzizkia erantziz, eta euskarazko *-(t)ar* atzizkia erantsiz, baldin eta jatorrizko izena tokiren bat adierazteko erabiltzen bada. Era berean, lehenago adierazitako arrazoiagatik, gehienetan nazioarteko grafia gordetzen saiatzea. Horrela, *chibcha-paeztar*, *dravidar* (< Dravida), *niloar*, *uraldar*, *papuar* eta abar.
- ✍ 4.3. Nazioarteko izena ez badago toki-izenen baten gainean eraikia, edo hori baieztatzerik ez bada izan, bere horretan, atzizkirik gabe uztea: *almosan hizkuntza taldea* kasuko.
- ✍ 4.4. Zenbaitetan, izena oso ezaguna denean, oinarrizko izena inolako euskal atzizkirik erantsi barik eman da. Horrela egin da, esate baterako, ondoko izenekin: *apache*, *azteka*, *bantu*, *berber*, *maya*, eta *na-dene*.
- ✍ 4.5. Oinarriari *-(t)ar* atzizkia eranstea, Azkunek eta bestek (1990) eta Alberdik eta Sarasolak (2001) munduko leku-izenetako jentilizioak osatzeko proposatzen duten erabilera gordetzea proposatzen da, era honetan:

-dar aldakia:

- ✍ *-m*, *-n* edo *-l* kontsonantez amaituriko oinarriari (*dagestandar* eta *uraldar*);

-tar aldakia:

- ✍ gainontzeko kontsonanteren batez amaituriko oinarriari (*-t* izan ezik), (*abkhaz-adyghtar*, *chibcha-paeztar*, *kerestar*, *mon-khmertar*);
- ✍ *-a* eta *-e* bokalez amaitzen diren silaba bakar edo biko oinarriari (*andetar*, *lolo-burmatar*, eta *oto-manguetar*);

-ar aldakia:

- ✍ oinarria *-t* kontsonantez amaitzen bada (*eskimo-aleutar*);
- ✍ *-i*, *-o* eta *-u* bokalez amaitzen denean (*niloarra*, *sepik-ramuar*, *kaukasoar*);
- ✍ hiru silaba edo gehiagokoa izanik *-a* eta *-e* bokalez bukatutakoei (*caribear*, *malayo-polinesiar*);

4.6. Familiaren izena hitz-elkartua bada, oinarriak marratxo baten bidez adieraztea erabaki da, hala nola, *benue-kongoar* eta *ge-pano-caribear*. Alabaina, elkartutakoren bat kontinenteren baten izena bada, marratxo barik idatziko da, esaterako *indoeuropar*, *afroasiar* eta *austronesiar*.

Bibliografia

- Alberdi, X. (1999) *Euskaltzaindiaren araugintza berria: ikastaroa*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Alberdi, X. eta Sarasola, I. (2001) *Euskal estilo libururantz*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Azkune, I., Etxeberria, E., Gurrutxaga, A., Irazabalbeitia, I., Jauregi, M. eta Mujika, A. (1990) *Munduko leku-izenak*. Donostia: Elkar – Elhuyar.
- Barreña, A., Idiazabal, I., Juaristi, P. eta Uranga, B. (2003a). "Munduko hizkuntzei buruzko txostena'ren inguruko zenbait jakingarri". *BAT soziolinguistika aldizkaria* 46, 37-50.
- Barreña, A., Idiazabal, I., Juaristi, P. eta Uranga, B. (2003b). "Munduko hizkuntzei buruzko txostenaren aurkezpena". *Euskalingua* 2, 155-161.
- Comrie, B., Matthews, S. eta Polinsky, M. (1996) *The Atlas of languages. The origin and Development of Languages Throughout the World*. New York: Facts On File.
- Crystal, D. (1994) *Enciclopedia del lenguaje de la Universidad de Cambridge*. Madrid: Taurus.
- Del Moral, R. (2002) *Lenguas del mundo*. Espasa: Madrid.
- England, N. C. (1994) *Autonomia de los idiomas mayas: historia e identidad*. Guatemala: Cholsamaj.
- Euskaltzaindia (1994-2003) *Euskaltzaindiaren arauak*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia (2000) *Hiztegi batua*. Bilbo: Euskera 45.
- Glozie, D. H. eta Blench, R. M. (arg.) (1998) *An Index of Nigerian Languages*. Dallas: Summer Institute of Linguistics.
- Grimes, B. F. (arg.) (2000) *Ethnologue: Languages of the world*, 14th edition. Dallas: Summer Institute of Linguistics.
- Instituto Nacional de Estadística, Geografía e Informática (1994) *La población indígena mexicana*. Mexiko: Instituto Nacional de Estadística, Geografía e Informática
- Junyent, C. (1999) *La diversidad lingüística. Didáctica y recorrido de las lenguas del mundo*. Barcelona. Octaedro
- Kinkade, M. D. (1991) "The decline of native languages in Canada". Robins, R. eta Uhlenbeck, E. (ed) *Endangered languages*. Oxford: Berg, 157-176.
- Kloss, H. & McConnell, G. D. (1974) *Linguistic composition of the nations of the world. 1. Central and Western south Asia*. Québec: Les presses de l'université Laval.
- Kloss, H. & McConnell, G. D. (1978a) *Linguistic composition of the nations of the world. 2. North America*. Québec: Les presses de l'université Laval.
- Kloss, H. & McConnell, G. D. (1978b) *Linguistic composition of the nations of the world. 5. Europe and the USSR*. Québec: Les presses de l'université Laval.
- Kloss, H. & McConnell, G. D. (1978c) *The written languages of the world: A survey of the degree and modes of use. 1. The Americas*. Québec: Les presses de l'université Laval.
- Kloss, H. & McConnell, G. D. (1979a) *Linguistic composition of the nations of the world. 3. Central and South America*. Québec: Les presses de l'université Laval.
- Kloss, H. & McConnell, G. D. (1979b) *Linguistic composition of the nations of the world. 3. Central and South America*. Québec: Les presses de l'université Laval.

- Kloss, H. & McConnell, G. D. (1981) *Linguistic composition of the nations of the world. 4. Oceania*. Québec. Québec: Les presses de l'université Laval.
- Kloss, H. & McConnell, G. D. (1984) *Linguistic composition of the nations of the world. 5. Europe and the URSS*. Québec. Québec: Les presses de l'université Laval.
- Landaburu, J. (1995) "Las lenguas indígenas de Colombia". Eskuizkribua.
- Moreno Cabrera, J. C. (1990) *Lenguas del mundo*. Madrid: Visor.
- Morózova, O. eta Yéschenko, A. (1999) *Panorama Lingüístico del Cáucaso del Norte*. Piatigorsk. Piatigorsk-eko Estatutuko Hizkuntzalaritza Unibertsitatea [eskuizkribua].
- Moseley, C. eta Asher, R. E. (1994) *Atlas of the world's languages*. Londres: Routledge.
- Ruhlen, M. (1991) *A Guide to the World's Languages*. London: Edward Arnold.
- Suárez, J. A. (1983) *The Mesoamerican Indian Languages*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Wurm, S. A. (1996) *Atlas of the world's languages in danger of disappearing*. Paris-Camberra: UNESCO Publishing / Pacific Linguistics.
- Wurm, S. A. (2001) *Atlas of the world's languages in danger of disappearing*. Paris-Camberra: UNESCO Publishing / Pacific Linguistics.
- Wurm, S. A. , Mülhäusler, P. eta Tryon, D. T. (arg.) (1996) *Atlas of Languages of Intercultural Communication in the Pacific, Asia and the Americas*. Berlin / New York: Mouton de Gruyter.